

# Etxean geratu naiz. Orain kalera aterako gara. Burujabetza bizitzak sustengatzeko

## LEHENIK BIZITZA!

Luzeak egin zaizkigu egunak. Ikusezina den zerbaitek gure egunerokotasuna goitik behera zeharkatu du eta normalitatea hautsi. Dagoeneko gauzak aldatu dira eta ez gara lehen-gora bueltatuko. Berdin zaigu, ordea, guk ez dugulako nahi aurreko normalitatea, guk aurrera egin nahi dugulako.

Atzean utzi nahi dugu osasun krisi bati erantzuteko gai ez den jendarte antolaketa. Pertsonak, komunitateak eta planeta babestea lehenetsi behar da, ez merkatua, etekin ekonomiko eta jabetza pribatua. Langile eta herri sektoreen interesak erdigunean jartzeko unea da. Lehenik bizitza!

Azken hamarkadetan gobernatzen gaituztenek hartu dituzten neurriak neoliberalak izan dira eta horrek kolapso egoerara eramán gaitu. Sistema kapitalista, heteropatriarkal, arrazista, ekozida, kolonialistak eramán ditu gure bizitzak kolapsora. Banka erreskatatu, zerbitzu publikoetan etengabe-ko murrizketak egin, lan erreformen bidez soldatapeko lana aseezina den merkatuaren menpe utzi eta beharrezkoak diren lanak ezkutuan mantentzeko politikak egiten dira egu-nero-egunero gurean.

Krisiak aldaketa garaiak eta aukeren momentuak omen dira. Euskal Herria. XXI. mendea. Bizitzak sustengatzeko gure burua gobernatu nahi dugu, erabakiak hemen hartu, gehiengoan arabera politikak egiteko. Eredu sozio-produktibo berria ezinbestekoa da, erabateko norabide aldaketa exijitzen dugu. Ez gara gutxiagorekin konformatuko.

Agiri honekin bat egiten dugunok errealitate berria aldarrikatu nahi dugu. Orain arteko norabidean segitzea jasangarria dela pentsatzea utopia neoliberala da. Bizitzak erdigunera / Bizitza lehenik.

### ESKUBIDE GUZTIAK GUZTIONTZAT

Herritar askeak izan nahi dugu. Horretarako guztion eskubide sozialak —osasuna, hezkuntza, elikadura osasuntsua, etxebizitza, kultura— bermatu eta erabakiak hartzeko ahalmena ezinbestekoak zaizkigu. Jendarte demokratikoa; jatorri, arraza sexu-genero, hizkuntza eta edozein diskriminazio erotik ezabatuko duena. Instituzioek herritar guztion eskubideak bermatzeko berezko misioa dutela ulertuz, indibidualismoan oinarrituriko eredu batetik praktika kolektibo-komunitarioak sustatuko dituen ereduranzko trantsizioa egin behar dugu, guztionak diren bitartekoak guztion eskura jarri eta guztiok gure ekarpena eginez.

Pertsonen arteko sareak, harremanak, trukeak, elkar zaintzak indartuz Herri burujabetza ariketa etengabea izango da gu-

rea. Alarma egoeraren baitan hartu diren kontrol neurriak zein estatuaren birzentralizazioaren aurrean, burujabetzak aldarrikatzen ditugu: gure gorputzari buruzko erabakia, gure herriaren etorkizuna, gure proiektu autoeratuak eta gure eredu sozio produktiboa garatzeko ahalmen osoa.

### LANA(k) BERRANTOLATU

Bizitzak sostengatzen dituzten lanak aitortu eta banatu behar ditugu, eta langile orori lan baldintza duinak bermatu, egoera administratibo irregularrean daudenenak barne. Produzitzen duguna berraztertu, ekarpen soziala lehenetsi, jakintza hedatu eta lan orduak murriztu behar ditugu. Lana banatu, kalitatezko enplegua sortu, jendarte kontrola bermatu eta lan egiteko bizi baina, bizitzeko lan egin behar dugu. Alternatiba badago eta gure esku dago.

### BABES SOZIALERAKO SISTEMA INDARTU. OSASUNA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK INDARTU

Sistema publiko eta komunari balorea eman (jabetza publiko, eredu partehartzailea), kronifikatu den pobrezia eta prekarietateari aurre egiteko. Herritarrak babesteko sistema eraginkor, indartsu eta propioa behar dugu, bertatik bertara eraikia dena. Egoera zaurgarienean dauden kolektiboen bizi beharrak asetzeko erronka daukagu. Egoera zaurgarrietan dauden kolektiboen bizi-beharrak asetzea erronka izanik, herritar guztiok bizitza duina izateko dugun eskubide helburu beharko luke.

### KAPITALAK ORDAINDU DEZALA/ ABERATSEK ORDAIN DEZATELA

Herritarrak ez gaude prest sistema kapitalistak sortu duen krisiaren ondorio kaltegarriak gure bizkar hartzeko. Askoren lanaren etekinetatik gutxi batzuek metatutako aberastasuna modu ekitatiboan banatzeko garaia da. Zor ilegítimorik ez dugu onartuko eta gehien duenak gehien ordain dezan, erreforma fiskal sakonak beharrezkoak izango dira. Instituzioak patronalaren menpe eta kapitalaren bahu izateari utzi eta herri sektoreon mesedetara jarri behar dira.

Egoera grisa murrizten badigute ere, guk koloretako etorkizuna irudikatzen jarraitu behar dugu, gure urratsak norabidetzeko. Kanean mobilizatuko gara. Une bakoitzean tokian tokiko errealitatea egokitu eta beharrezkoa osasun neurriak arduraz betez. Deialdia lau haizetara zabaldu nahi dugu, lehenik bizitza! aldarrikatuz.

2020ko ekaina. Euskal Herria

Me he quedado en casa. Ahora saldremos a la calle.  
Soberanía para sustentar las vidas

# ¡PRIMERO LA VIDA!

Los días se nos han hecho largos. Algo invisible ha irrumpido en nuestro día a día y ha alterado la normalidad. Las cosas han cambiado y no volveremos al anterior escenario. Sin embargo, no nos importa por el mero hecho de que no queremos la anterior normalidad, queremos avanzar.

Queremos dejar atrás un modelo social incapaz de responder a una crisis sanitaria. Se ha de priorizar la protección de las personas, de las comunidades y del planeta, en lugar de la protección del mercado, del beneficio económico y de la propiedad privada. Es hora de poner en el centro los intereses de las y los trabajadores y del pueblo. ¡Primero la vida! En las últimas décadas, quienes nos gobiernan han adoptado medidas neoliberales, circunstancia que nos ha llevado a una situación de colapso. El sistema capitalista, heteropatriarcal, racista, ecocida, colonialista ha conducido nuestras vidas al colapso. En el día a día de nuestro país se llevan a cabo políticas que suponen el rescate de la banca, continuos recortes en servicios públicos, el sometimiento del trabajo asalariado a un mercado insaciable a través de reformas laborales y la invisibilización de los trabajos esenciales. Las crisis suelen ser tiempos de cambio y oportunidades. Euskal Herria. Siglo XXI. Queremos ser dueñas y dueños de nuestras decisiones para sustentar nuestras vidas y decidir aquí con el fin de desarrollar políticas en función de las mayorías. Es indispensable un nuevo modelo socio-productivo. Exigimos un cambio de rumbo radical. No nos conformaremos con menos.

Nos adherimos a este documento para reivindicar una nueva realidad. Es una utopía neoliberal pensar que es sostenible seguir en la misma dirección. Las vidas al centro/Primero la vida.

## TODOS LOS DERECHOS PARA TODAS LAS PERSONAS

Queremos ser personas libres. Para ello, es imprescindible garantizar todos los derechos sociales -salud, educación, alimentación saludable, vivienda, cultura- y la capacidad de decisión. Es imprescindible una sociedad democrática que elimine de raíz cualquier discriminación por origen, raza, sexo, género, lengua o cualquier otro supuesto. Entendiendo que las instituciones tienen la misión intrínseca de garantizar los derechos de todas las personas, debemos hacer una transición desde un modelo basado en el individualismo hacia un modelo que fomente las prácticas colectivo-comunitarias, poniendo al alcance de todas las personas los medios que nos pertenecen y pudiendo realizar nuestras propias aportaciones.

Reforzando las redes interpersonales, las relaciones, los intercambio y los cuidados mutuos, el nuestro será un ejercicio de soberanía popular permanente. Frente a las medidas de

control adoptadas en el estado de alarma y a la recentralización del Estado, reivindicamos soberanías: plena capacidad de decisión sobre nuestro cuerpo, sobre el futuro de nuestro país, sobre nuestros proyectos autoconstituidos y sobre el desarrollo de nuestro modelo socio-productivo.

## REORGANIZAR EL TRABAJO/LOS TRABAJOS

Se han de reconocer y distribuir los trabajos que sustentan las vidas y garantizar unas condiciones laborales dignas a todas y a todos los trabajadores, incluidos quienes se encuentran en situación administrativa irregular. Tenemos que revisar la producción, priorizar la aportación social, ampliar el conocimiento y reducir las horas de trabajo. Tenemos que repartir el trabajo, crear empleo de calidad, garantizar el control social y trabajar para vivir más que para trabajar. La alternativa existe y está en nuestras manos.

## REFORZAR EL SISTEMA DE PROTECCIÓN SOCIAL. REFORZAR LA SALUD Y LOS SERVICIOS PÚBLICOS

Debemos poner en valor el sistema público y común (propiedad pública, modelo participativo) para hacer frente a la pobreza y a la precariedad cronicada. Necesitamos un sistema de protección eficaz, potente y propio para las personas, construido por nosotras y nosotros. Tenemos el reto de satisfacer las necesidades vitales de los colectivos más vulnerables. Ante este reto de colmar las necesidades vitales de los colectivos vulnerables, nuestro objetivo debe pasar por lograr el derecho a una vida digna para toda la ciudadanía.

## QUE PAGUE EL CAPITAL/QUE PAGUEN LOS RICOS

La mayoría social no está dispuesta a asumir las consecuencias negativas de la crisis generada por el sistema capitalista. Es hora de repartir equitativamente la riqueza acumulada por unos pocos gracias a los beneficios del trabajo de la mayoría. No vamos a aceptar deudas ilegítimas. Con objeto de que pague quien más tiene, serán necesarias reformas fiscales profundas. Las instituciones deben dejar de depender de la patronal y de ser rehenes del capital. Han de estar al servicio de los sectores populares.

Aunque la situación que nos presentan sea gris, tenemos que seguir dibujando un futuro de color para orientar nuestros pasos. Nos movilizaremos en la calle, adecuándonos a la realidad en cada momento y cumpliendo responsablemente las medidas sanitarias necesarias. Queremos hacer extensivo nuestro llamamiento a todas y todos, con una reivindicación clara: ¡primero la vida!

Junio 2020. Euskal Herria